

AGERIKO BATZARRA

Bilbon, 1999ko urtarrilaren 29an

Bilbon, Plaza Barriko Euskaltzaindiaren egoitzan, 1999ko urtarrilaren 29an, arratsaldeko lau eta erdietan, hasi da Euskaltzaindiaren ageriko batzarra. Honako jaun-andre hauek bildu dira:

J. Haritschelhar euskaltzainburua eta P. Goenaga idazkaria eseri dira mahaian hiru hizlariekin (J. San Martin, X. Kintana eta X. Gereño) batera. Aipatuez gainera honako euskaltzainak bildu dira: H. Knörr, J. A. Arana, P. Altuna, M. Azkarate, J. L. Davant, X. Diharce, J. M. Lekuona, Tx. Peillen eta L. Villasante.

Euskaltzain urgazleak, berriz, honako hauek: X. Aranburu, R. Badiola, F. Barrenengoa, A. Eguzkitza, S. Garcia Trujillo, J. L. Goikoetxea, J. L. Lizundia, A. Muniategi, K. Rotaetxe, P. Uribarren eta J. J. Zearreta.

Euskaltzain jaun-andre hauez gainera, F. Krutwigen, J. Berrojalbizen eta I. Barrioren senitarteko ugari ere bildu dira aretoan.

Lehenbizi, idazkariak goizeko bilkuraren berri eman du: hizkuntz araugintzan egindako lana, euskaltzain berri izendatzeko hautagaitza eta Zearreta jaunaren domina.

Ondoren, euskaltzainburuak Xabier Kintanari eman dio hitza F. Krutwigen hilberria irakur dezan. Zenduaren bizitza eta lanak aipatu ditu. Jasotako sariak ere aipatu ditu. Hari zor zaio Euskaltzaindiaren berrikuntza. Kultura ikaragarria zuena eta, gizon gisa, askatasuna eta independentzia zalea.

Eskari batekin amaitu du hitzaldia: Getxok, haren jaioterriak, kale bat eskain die-zaiola. Bilbok, berriz, zubi bat eskaini behar lioke, egindako zubi lana oroituz.

Ondoren, Luis Villasantek ere bizpahiru hitz egin nahi izan ditu Krutwigen omenez. Nola ezagutu zuen azaldu du hitz labur eta hunkigarriak jalkiz.

Euskaltzainburuak bi hizlarietara eskerrak eman ondoren, X. Gereño jaunak hartu du hitza. Julita Berrojalbiz euskaltzain ohorezko zenaren zenbait datu pertsonal eman ondoren, andre honen euskararen aldeko lana zenbaterainokoa izan zen azaldu du. Haren izena Bizkaiko ikastolen historiari loturik ageri da, urte zailenetatik beretatik hasita.

Azkenik, J. San Martinek irakurri du Ignazio Barriola zenaren hilberri txostena. Haren bizitzako zertzeladak eman ditu, ikasketak, konpromiso politikoak, kulturari buruzkoak etab.

Bilkura amaitu aurretik euskaltzainburuak hitza hartu du bilduei Imanol Laspiur euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri emateko, alde batetik. Bestetik, berri onak ere

izan ohi direla aipatu du: Charritton jaunak Eusko Ikaskuntzaren *M. Lekuona* saria eskuratu duela eta J. M. Lekuonak, berriz, Rosalia de Castro saria. Bi euskaltzainak zoriondu ditu eta, orobat, bilduen artean aurkitzen zen A. Muniategi ere, Justizia sailburu izendatu berri izan delako.

Eta horrenbestez, arratsaldeko seiak hamar gutxitan, bukatutzat eman da arratsaldeko batzarra.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *